

# Lurralde eta ikastetxe desberdinetako euskararen erabileraren datuen hausnarketa eta konparaketa

**Beñat Urkiza Sesma**  
*Euskal Filologian lizentziatua*  
burkiza@gmail.com

Sarrera-data: 2013-09-30 / Onartze-data: 2013-12-30

**Laburpena:** Euskararen erabilerak izan duen bilakaerak agerian jarri du aldaketa sakona dela hizkuntz ohitura berriak barneratzea. Hizkuntz bidaia hori erraztea da lan honen helburu nagusia. Lanaren sorburuan, honako hiru galdera hauek daude: Zergatik aldatu hizkuntz jokabidea eta euskaraz bizitzen saiatu? Zer gaitasun landu behar dira prozesua arrakastatsua izan dadin? Zer oinarri teoriko eta metodologiko erabil daitezke norberaren euskararen erabilera-marka hobetzeko? Lan honetan, honelako erantzunak proposatzen dira: a) Euskaraz bizitzeko motibazioa indartsuagoa da norberaren asmo transzendentetan eta balioetan oinarritzen denean; b) Prozesuaren arrakasta bermatzeko beharrezko dira gaitasun emozionalak lantzea, nork bere buruaren ezagutzan sakontzea, huts egitetik ikastea, eta euskararen gaineko aurreiritziak zalantzan jartzea eta c) Eraitza hobeak lortzen dira elkarlanean arituta, eta enpatia eta konfiantzatik abiatuta, hizkuntz gatazkaren paradigma erabilia baino. • **Hitz gakoak:** *euskara, bizi, erabilera, hizkuntza, goza, bidaia.*

**Abstract:** The evolution that has taken place in Basque use has shown that it constitutes a far-reaching shift when internalising new language habits. The main aim of this work is to facilitate that language journey. The following three questions prompted this piece of work: Why change one's language behaviour and try to live in Basque? What competence needs to be developed so that the process is successful? What theoretical and methodological basis can be used to improve one's score in the use of Basque? This work puts forward the following answers: a) The motivation to live in Basque is stronger when it is underpinned by one's own transcendental plans and values; b) To ensure that the process is successful, it is necessary to work on emotional competences, to develop self-knowledge in-depth, to learn from scratch, and to cast doubt on the prejudices about Basque; c) Better results are achieved when working in collaboration, and from the starting point of empathy and trust rather than using the paradigm of language conflict. • **Key words:** *Basque, to live, use, language, enjoyment, journey.*

## SARRERA

### I

Ikerlan honetan, izenburuak argi esaten duen bezala, euskararen erabileraren gaineko datuak interpretatu eta konparatzen dira. Horretarako, administrazio desberdinetan banaturik dagoen euskal eremuko bi herriren eta euskal ereduak lantzen duten ikastetxe moten datuak erabiliko dira.

Munduaren globalizazioaren ondorioz, Euskal Herrian bezala, badira zaindu eta kontserbatu beharreko hizkuntza txikiak, gizarte anitzak gero eta homogeneoago bihurtzen doazelako. Horrekin batera, herri izaera izateko, norbanakoak hizkuntza mantentzeaz gain, beste hainbat alor ere kontuan izan beharko ditu.

Bestalde, euskal hezkuntza sisteman, oraindik guztiz euskalduna izateko falta baldin bazaio ere, euskal eredu markatua dago, D eredu. Eredu horren barruan, euskaraz irakasteko hautua eginda dago; beraz, urteetan ikasleek euskaraz ikasteko aukera izan dute eta izango dute. Baina, zoritxarrez, oraindik ere euskaraz ikasteak ez dio norbanakoari aipatutako hizkuntzan egunerokotasunean bizitzea bermatzen. Hortaz, argi dago euskaraz bizitzeko hautua pertsonala dela, ez hezkuntza sistemak ematen duen zerbait.

Ikasketa prozesuak bakarrik ez, ikastetxeetatik kanpo gizarteak sortzen dituen testuinguruak ere kontuan izan behar dira. Esan den bezala, ikastetxeetan euskal ereduak ikasteak ez du bermatzen egunerokotasunean euskaraz bizitzea.

Datuak ikusi eta gero, modurik naturalena da hausnarketarako bidea zabalik uztea; horrela, irtenbideak eman ordez, prozedura berriak sor daitezkeelako.

Arestian esan bezala, bi herri aukeratu dira ikerlan hau aurrera eramanez izateko eta datu esanguratsuak lortzeko. Bi herrietan errealitate desberdinak aurkitzen dira, eta horrek euskararen abaniko zabala erakustez gain, testuinguru euskaldunean bizitzeko dauden bi ikusmolde erakusten ditu.

Hautatutako herri biak Euskal Herria osatzen duten administrazio desberdinetakoak dira. Bata, EAEko kostan dagoen herri bizkaitar bat, Ondarroa; eta, bestea, NFEko hiriburu nagusia, Iruñea.

Bi herri horien inguruko hautaketaz luze eta zabal hitz egin daiteke, baina modu laburrean esanda, oso desberdinak direlako izan dira aukeratuak.

Marko teorikoa osatzerako orduan, hainbat puntu izan dira kontuan eta, gainera, aintzat hartu dira aurretik materia honetako adituek esandakoak. Puntu esanguratsuen artean honako hauek egongo dira: lu-

---

***Euskararen  
erabilerak izan  
duen bilakaerak  
agerian jarri du  
aldaketa sakona  
dela hizkuntz  
ohitura berriak  
barneratzea.  
Hizkuntz bidaia  
hori erraztea da  
lan honen  
helburu nagusia.***

---

**Argi dago  
euskaraz  
bizitzeko hautua  
pertsonala dela,  
ez hezkuntza  
sistemak ematen  
duen zerbait.**

rraldetasuna, hizkuntzak, datu soziolinguistikoak, hezkuntza ereduak, etorkinak eta nerabezaroa.

Sei gai horiek erabiliko dira, eta gainontzeko argudiaketa guztia puntu hauen gainean oinarritu da. Puntu hauetan aipatzen dena hona laburtuta ekarri ez bada ere, zerbait esan behar da hizkuntzen inguruko legediaz edota euskararen erabilerari buruzko datu soziolinguistikoetz.

Hizkuntzen ofizialtasunaren inguruko datuek esaten dute EAEn euskarak ofizialtasun osoa duela hiru probintzietan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa). NFEa hiru zonaldeetan dago banatua eta euskararen ofizialtasunaren legea ez da berdina Nafarroako eremu guztietan. Hau da, Nafarroan euskara eremu euskaldunean (Nafarroa iparraldean) bakarrik da ofiziala. Beste bi eremuetan (zonalde mistoa eta ez-euskaldunean) euskarak ez du ofizialtasunik.

Zehaztasun hori emanda, argi eta garbi ikusten da bi lurraldeen arteko aldea. Testuinguru hau euskara erabilia den edo erabilia ez den errealitatek haratago doa, hau da, jendartearen eskubide urraketa ari da.

Datu soziolinguistikoetan oinarrituta, euskararen erabileraren emaitzak ere esanguratsuak dira. EAEko hezkuntzari buruzko datuak ikusteko, Arrue proiektu osotura jo dezakegu, hor agertzen baitira ikastetxe eremuari buruzko daturik zehatzenak.

Aipamen batzuk gogora ekartzeko, esanguratsua da ikasturte anitzetako ikasleen arteko hizkuntzaren erabilerak gelan nola aldatzen diren. Esaterako, LH 4.mailan euskara ia %40k erabiltzen du, eta gaztelania, %13k; DBH 2.mailan, berriz, %14k, euskara, eta %40k, gaztelania.

Ikasleek jolaslekuan duten hizkuntza erabileraren nozioa oso bestelakoa da. Bi kurtsoetan, jolaslekuan, ikasleen % handi bat gaztelaniaz aritzen da.

Datu esanguratsuekin bukatzeko, gela barruan bi mailetako ikasleak irakasleekin % handi batean euskaraz mintzo dira. Hala ere, LH 4.mailako ikasleak euskara gehiago erabiltzen dute DBH 2.mailako ikasleak baino. Garbi esanda, LH 4.mailan %53 euskaraz aritzen da irakaslearekin eta DBH 2.mailan, aldiz, %37.

NFEko emaitzak ikusteko, Nafarroako Gobernuak eta Euskara Bideak egindako hausnarketak dira aipagarrienak. Datuek diotenez, gazte askok izan dute aukera euskaraz ikasteko 1986an Nafarroako Euskararen Foru Legea onartu zenetik. Hizkuntzaren gaitasunari dagokionean, hamar lagunetik bik dute euskaraz idatzi, irakurri, hitz egin edota ulertzeko gaitasuna. 2008 urtetik hona zerbait aldatu bada ere, data honen aurreko garaietan euskararen gaineko ez-gaitasuna %80tik gorakoa zen nafar jendartearen.

Adinari begiraturaz, adin tarte gazteena da euskararen inguruko gaitasun hoberena duena; eta konpetentzia gutxien duena, 55 urtetik gorakoen taldea da.

Lurraldetasunari dagokionez, zonalde euskaldunean dago eremuko euskaldun kopururik handiena, %57; eta beste eremuetan beheranzko joera hartu du euskaldunen kopuruak. Datuek esaten digutenaren arabera, nafar lurraldeko biztanleriaren %82 gaztelaniaduna da; gainontzeko %a, ostera, ia-euskaldunez eta euskaldunez osatua dago.

Hizkuntzaren erabileraren inguruan, egunerokotasuneko hizkuntza bezala, lurralde honetan %94k gaztelania erabiltzen du, eta euskara %5ek erabiltzen du.

## **METODOLOGIA**

### **I**

Ikerketa alorrak bi alderdi aipagarri izan ditu. Alde batetik, deskriptiboa izan da, lortutako datuak interpretazio hutsez adierazi direlako; eta, bestetik, hautagaitzakoa, ikasle eta lekukoek beraiek nahi izan zutena erantzuteko aukera izan zutelako.

### **Lagina:**

Laneko lagina lortzeko Euskal Autonomi Erkidegoko herri bat eta Nafarroako Foru Erkidegoko hiri bat erabili dira. Zehazki esanda, Ondarroa (Bizkaia) herria eta Iruñea (Nafarroa) hiria aukeratu dira. Bi hirigune horiek aukera handia ematen dute euskararen errealitate desberdinak azaleratzeko.

Horretarako, eta konparazioa ahalik eta bidezkoena izateko, euskaraz erakusteko hautua egin duten ikastegiaren artean egin da datu bilketa; hau da, eskola publiko eta ikastoletan. Ikastetxe mota horiek baliatuta, hiriguneetan mota bakoitzetik bana hautetsi dira. Aukeratutakoak 4 hauek izan dira:

- Ondarroa (Bizkaia):
  - Zubi Zahar Ikastola
  - Ondarroa BHI
- Iruñea (Nafarroa):
  - Jaso Ikastola
  - Askatasuna BHI

Lagina lortzeko, diseinatutako galdetegi bera lau ikastetxeetako DBH 3.mailako ikasleei pasatu zaie. Ikastetxe guztietan maila berean

**Hautatutako  
herri biak Euskal  
Herria osatzen  
duten  
administrazio  
desberdinetakoak  
dira. Bata,  
EAEko kostan  
dagoen herri  
bizkaitar bat,  
Ondarroa; eta,  
bestea, NFEko  
hiriburu nagusia,  
Iruñea.**

ikasle kopuru desberdina egon zitekeela ikusita, gutxi gorabehera gela bateko kopuruak baliatu da.

Emaitzetara begira, honako kopuruak erabiliko dira:

1. taula. Ikastetxeak eta ikasle-kopuruak

Zubi Zahar ikastola	22 ikasle
Ondarroa BHI	16 ikasle
Jaso Ikastola	21 ikasle
Askatasuna BHI	21 ikasle
<b>GUZTIRA</b>	<b>80 ikasle</b>

DBH 3.mailako ikasleak arrazoi batzuegatik aukeratu ziren; hau da, galdetegia pasatzeko, euskararen erabileraren inguruan hausnartu ahal izateko ume-umeak ezin ziren izan. Helduegiak izateak ere bere arriskuak zituen; horregatik, erdi bideko maila hautatu zen. Hortaz, oraindik helduak ez izan arren, ardura eta gauzak ondo egiteko konpromisoa hartzeko aukera eman zitzaizen ikasleei; edo hori nahi izan zitzaizen ulertarazi behintzat.

### **Datu bilketarako tresnak**

Arestian esan bezala, datuak biltzeko galdetegi bat osatu zen, lanerako behar zen informazioa lortzeko biderik zuzenena zelako.

Galdetegia ahalik eta egokiena izateko, ezinbestekoa izan zen hiru pertsona adituren lankidetzak: Roberto Soto (Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzarako Masterreko irakaslea eta Askatasuna BHI-ko psikologoa), Idoia Zengotitabengoa (Soziologoa, EHU) eta Iacopo Bonomo (Soziologoa, Università degli Studi di Milano Bicocca, Italia).

Beraiek aholkuak eta aldaketak planteatu zituzten inkestaren zirriborroen gainean. Zirrimarra batzuk egin eta gero, beharriaz aurre egiten zien galdetegi bat diseinatzea lortu zen. Diseinatu zen galdetegiak guztira 28 galdera zituen, 22 test galdera eta informazio osagarriko 6 galdera motz. Test metodoa egokiena zela ikusi zen; gainera, inkestak pasatzeko orduan ere ikastetxeei ahalik eta denbora gutxien kentzeko asmoarekin izan zen taxutua.

Galdetegia hiru zatitan banatu zen: a) Galdera laburrak, b) hizkuntza mota erabiltzeari buruzkoak, c) Jabekuntza eta erabilpenaren ingurukoak. Galdera-erantzun gehienak bigarren multzokoak dira, baina beste taldeetatik ere informazio garrantzitsua atera daiteke.

## **Datu bilketa eta azterketa**

Datu bilketari dagokionez, ibilbide berdina egin zen aipatutako lau ikastetxeetan. Esan behar da lehenengo momentutik ikastetxeekiko harremana irekia eta eroso izan dela bi aldeetatik. Nola ez, lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi zaie lan honetan laguntza eman duten zuzendaritza eta irakasleei.

Bestalde, datuak lortze aldera, ikastetxeetako datu bilketa periodikoki egin zen. Lehenengo, Ondarroako ikastetxeetan egun berean pasa zen; eta, ondoren, beste bi egunetan Iruñerriko ikastetxeetan.

Datutegiko mamia, ikastetxeetan nahiz eta egun desberdinetan batu, jaso zeneko metodologia ahalik eta antzekoena izaten saiatu zen.

Datu bilketarako erabili den metodologia honakoa da:

1. Ikastetxera agertu eta zentroko kontaktuarekin harremanetan jarri.
2. Ikastegiko arduradunak galdetegi pasa beharreko gelara eraman eta sartu.
3. Nire burua aurkeztu; eta, gero, denon artean galdetegi errepasatu.
4. 10-15 minutu utzi galdetegi pasatzeko.
5. Inkestak jaso eta gelatik irten.

Galdetegiak pasatzerakoan, bi elementu hartu dira kontuan. Alde batetik, harremanetarako hizkuntza formala erabili da; hau da, euskara batua; eta, bestetik, itxura fisikoa edota janzkera ez da une horietarako aldatua izan. Jarrera honekin, galdetzailea egoera neutro baten jarri nahi izan da, egon ahal ziren loturak saihesteko.

## **EMAITZAK**

**I**

Emaitzak ateratzeko orduan, toki zehatz batzuetan jarri da arreta gehiena, alor gehiegi analizatzeak kontrako eragina sor dezakeelako. Aztertuko diren puntu esanguratsuenak hauek izango dira: ama hizkuntza, euskararen erabilera, gelaz kanpoko hizkuntza jarduna, gurasoekiko hizkuntza, aisialdia eta euskaraz bizi.

Lehenenik eta behin, argitu behar den kontua da emaitzak hasiera batean ikastetxeka adieraziko direla, baina beraien artean izenez ez dira identifikagarriak izango. Nahiz eta ikastetxeak zeintzuk diren argi esan den, beraien bidez lortutako datuak anonimoki gordeko dira. Lortu diren emaitzak %tan emango dira, datuak ahalik eta garbienak izateko.

**Ondarroa A Ikastetxean** ikasleen %12,5 etorkina da, baina % horretatik 6,25ek bi urte daramatza Ondarroan, eta beste 6,25ek dagoeneko urte asko

**Lagina lortzeko,  
diseinatutako  
galdetegi bera  
lau  
ikastetxeetako  
DBH 3.mailako  
ikasleei pasatu  
zaie.**

daramatza herrian, eta guztiz integratua dago. Ama hizkuntza %75ek euskara du; %12,5ek, gaztelania; %6,25ek wolofera; eta %6,25ek Serer-ra.

Egunerokotasunean, %87,5ek euskara erabiltzen du komunikazioko hizkuntza bezala; %6,25ek, wolof-a; eta %6,25ek, gaztelania. Gaztelaniadunak euskara ikastetxeko hizkuntzatzat du; hau da, ikastetxetik kanpora ez du erabiltzen.

Galdera-erantzunetan % 100ean denek galdetegian agertzen zen *euskalkia* aukera erantzun dute, hortaz, euskalkia erabiltzen dute uneoro harremantzeko. Ikastetxe honetan, ikasleek euskara formala eta euskalkia berdintzeko joera erakutsi dute. Ematen duenaren arabera, badakite bereizketa zein den, baina euskara esaten dutenean euskalkiarekin lotzen dute. Desberdinak direla badakite, hala ere, modu generikoan deitzen diote beraien euskarari.

Gurasoekin erabiltzen duten hizkuntzaren inguruan aniztasuna dago. Ikasle hauen gelan badira gurasoak euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak, gutxi gorabehera %18,75. Hori horrela izanda, guraso eta ikastetxearen arteko batzarrak ere hizkuntza horretan egiten dira % berdinean. Nahiz eta zenbait gurasoren hizkuntza euskararen bestelakoa izan, umeak euskaraz bizi dira, jatorri etorkina eta euskara ikastetxeko hizkuntzarekin lotzen duen hiztunen kasuak kenduta. Lengoaiaren erabilera ikastetxera aplikatuta, irakasle eta ikasleen artean hizkuntza patroia berdinarekin erlazionatzen direla erakutsi dute datuek, %100 euskaraz.

Aisialdiari buruz ikertuz gero, hizkuntzarekin lotuak dauden bi astialdi mota aukeratu dira. Ikasleek praktikara eraman dezaketen hutsarten artean, filmak ikustea edota irakurtzea hautatu dira. Irakurketari dagokionez, aniztasuna ikusten da ikasleen erantzunetan. Ikasleen %68,75ek euskaraz irakurtzen du; %6,25ek, euskaraz eta euskara ez den beste hizkuntza batean; eta euskara ez den beste hizkuntza batean, %25ek. Filmei dagokionez, ikasleen %100ak dio euskara ez den beste hizkuntza baten ikusten dituztela.

Ikastetxe honetako ikasleak, %87,5ean, euskaraz bizi dira eta Ondarroako herriaren euskararen jabekuntza eta erabileraren datuekin bat dator, hau da, oso altua. Baina oraindik %a osatzeko zati bat falta da eta hauek oraindik ez dira euskaraz bizi; hau da, %6,25, euskara ikastetxeko hizkuntza bezala identifikatzen duena; eta %6,25, wolof hiztuna dena.

Wolofera ama hizkuntzatzat duen ikaslea orain dela bi urte etorri zen Ondarroara, eta euskararen murgilketa programan dago. Ama hizkuntza Serer-a duen etorkina, Lehen Hezkuntzan etorri zen Ondarroara; eta, dagoeneko, beste ondarrutar bat da. Guztiz integratua bakarrik ez, euskaraz ere oso ondo moldatzen da eta euskaraz bizitzea lortu du.

**Ondarroa B Ikastetxean** ikasleen % 95,45ek ama hizkuntza euskara du; eta falta den %4,54k, wolofera. Woloferaz mintzatzen den ikaslea etorkina da, eta euskara ikasteko murgilketa prozesuan dago. Erosotasunaren edo eguneroko hizkuntzaren gainean ere, ama hizkuntzaren % berdinak atera dira ikastegi honetan.

Ikastetxe honen kasuan, ikasleek euskara euskalkiari deitzen diote. Teorikoki euskara formala eta euskalkia erregistro desberdinekin harreman-tzen dakiten arren, egoera horietara iristean ez dute dakitena aplikatzen. Hau da, esparru eta eremu anitzetan euskalkian bakarrik mintzo dira.

Galdera-erantzunei dagokienez, % 100ek euskalkia erabiltzen du; hortaz, euskarak ikastetxe honetan indar handia du. Dena den, hizkuntza patroia berdina erabiltzen dute irakasle nahiz ikasleekin komunikatzeko.

Gurasoekin mintzatzeko hizkuntzaren inguruan, %90,9k euskaraz hitz egiten du; %4,54k, erdizka edota gurasoetako batek euskaraz daki; eta %4,54, euskara ez den beste hizkuntza batean.

Aisialdian irakurketari dagokionez, aniztasuna dagoela erakusten dute datuek. Euskaraz %59k irakurtzen du; euskara eta euskara ez den beste hizkuntza batean, %31,81ek; eta euskara ez den beste hizkuntza baten, %4,54k. Nahaste baten ondorio izan daiteke, baina % 4,54k ez dio galderari erantzun.

Filmak gehienek euskara ez den beste hizkuntza batean ikusten dituzte, zehazki esanda %95,45ek; eta %4,54k, euskaraz eta euskara ez den beste hizkuntza batean.

Ikasle hauek euskaraz bizi dira ikastetxetik kanpora ateratzen direnean. Galdera-erantzun pare batean, azalpen txiki batzuk emateko beta zegoen, eta bertan zenbait ikaslek azalpenak eman dituzte. Horretan sartu aurretik esan behar da %95,45 euskaraz bizi dela; eta falta den %4,54 etorkina den ikaslearekin identifikatu behar dela. Galderetako erantzunetan egin dituzten zehaztasunetan euskaraz kalean, lokalean, parrandetan, etxean, familian ... egiten dutela adierazi dute.

Bukatzeko, ikastetxe honetan, ez dago etorkin askorik, baina DBH 3.mailako gela honetan dagoenak euskara ikasteko borondatea du. Familia eta ikastetxearen arteko batzarrak, ikasleak berak erantzun duenaren arabera, euskalkian eta euskara ez den beste hizkuntza batean izaten dira. Aisialdian, irakurketak euskaraz egiten ditu eta filmeak, euskara ez den beste hizkuntza batean ikusten ditu. Oraindik ere euskaraz bizi ez den arren, horretan dabil.

**Iruñeko A Ikastetxean** ama hizkuntzaren erantzunak oso anitzak dira gela barruan eta %ak asko aldatzen dira. %9,52k euskara du ama hizkuntzatzat; %33,3k, euskara eta euskara ez den beste hizkuntza bat;

---

**Aztertuko diren  
puntu  
esanguratsuenak  
hauek izango  
dira: ama  
hizkuntza,  
euskararen  
erabilera, gelaz  
kanpoko  
hizkuntza  
jarduna,  
gurasoekiko  
hizkuntza,  
aisialdia eta  
euskaraz bizi.**



eta %57,14k, gaztelania. Beste herriko errealitatearekin alderatuz, dagoeneko desberdintasunak nabari dira. Begi bistako aldaketak ditugu euskal hiztunen paisaia linguistikoa zehazteko orduan.

Ikasleetatik %8,57 dago eroso euskararekin eta ikasle hauek berak dira euskararen erosotasuna gaztelaniarekin parez jartzen dutenak. Gai-nontzeko guztiek, hau da, %71,43, gaztelaniaz ari da erosoan.

Ikasgelara inguruetakoa herrietatik %14,28 dator ikastera, gainontzeko %85,72 hirian bizi da. Hiritarretatik %19, oporretan edo asteburuetan, herrira joaten da eta osorik errespetatzen ez bada ere, herrian euskaraz hitz egiten dute.

Galdera-erantzunei dagokionez, euskara arloan %38k egiten du euskaraz; eta ikasleen artean, %4,54 da, orokorrean, harreman komunikatibo guztia euskaraz egiten duena. Ikasle gehienek irakasleei euskaraz egiten diete, baina beraien artean euskara ez den beste hizkuntza batean aritzen dira.

Horrez gain, arlo formal eta ez-formalen arteko bereizketa bat ikus daiteke %14,28ren kasuan. Hau da, arlo formaletan euskaraz aritzen dira eta ez-formaletan, aldiz, euskara ez den beste hizkuntza batean. Arlo formalak euskara edo natur zientziak dira eta arlo ez-formalen artean soinketa behintzat bai.

Bestalde, gela kanpoko euskararen erabileraren kasuan, eskola birtarteetan edota jolas orduetan ikaskideen %80,95 euskara ez den beste hizkuntza baten aritzen da; %9,52, euskaraz; eta falta den %9,52, euskaraz eta euskara ez den beste hizkuntza batean.

Erabilerarekin jarraituz, gurasoekin ikasleek duten komunikazioa anitza da eta % desberdinak ikusten dira emaitzetan. Ikasleen %66,6k euskara ez den beste hizkuntza batez hitz egiten du gurasoekin; %28,57k, gurasoetako batekin behintzat badu euskaraz egiteko aukera; eta %4,76k, euskara hutsean.

Aisialdiari dagokionez, irakurketa arloan, ikasleen %54,54k euskaraz eta euskara ez den beste hizkuntza batean irakurtzen dituzte irakurgaiak; %14,28k, euskara hutsean; eta %28,57k, euskara ez den beste hizkuntza batean. Pelikulei dagokionez, %ak bestelakoak dira irakurketarekin konparatuta. Ikasleen %90,47k euskara ez den beste hizkuntza batean ikusten dituzte pelikulak; eta %9,52k, euskara eta euskara ez den beste hizkuntza batean.

Euskaraz bizi diren edo ez esaterako orduan, zalantzak sortzen dira ikasleen hainbat erantzun ikustean. Alde batetik, badira ikastetxetik kanpo euskararik erabiltzen ez dutenak, %52,38; eta, bestetik, badira erabiltzen dutela esaten dutenak ere, %42,85. Puntu honetan zehaztasun txiki bat egin beharra dago erabiltzen dutenen erantzunak ikusita. Baiezkoa eman

durenek herrian, futbolekin, lagunekin, proposatutakoan ... euskaraz egiten dutela esan dute, baina, ondoren, ZENBAT? galderari erantzuterako orduan, erantzun hauek eman dituzte: gehiegi, batzuetan, oso gutxi ...

Ikasle hauetako asko hirian bizi dira, eta jakina da hiriak berak nolako zailtasunak dituen ikasle hauek ikastetxeetan ikasitakoa praktikara eramateko. Herrian bizi direnen %a %14,28koa da eta, hala ere, ez du bermatzen euskaraz biziko direnik ere.

**Iruñeko B Ikastetxean** ikasleen %19,4k euskara du ama hizkuntza; %47,6k, gaztelania; eta %33,3k, euskara eta euskara ez den beste hizkuntza bat. Erosotasunaz galdetu zitzaizenean, ikasleen %9,52k euskara esan zuen; %19,4k, euskara ez zen beste hizkuntza bat; eta %71,42k, euskara eta euskara ez zen beste hizkuntza bat.

Ikasle hauen taldetik %4,76 bizi da herrian; eta gainontzeko %95,23, hirian. Iruñerria Iruñea hiriburuaz eta herri txikiagoez osatua dago, hortaz ikusi egin beharko litzateke ikastetxe hau non dagoen kokatua eta herria zerri deitzen dioten. Bestalde, hirian bizi direnetatik %19,4 herrira joaten da noizean behin eta han euskaraz egiten dute, nahiz eta ezin den orokortu.

Galdera-erantzunetan, ikasleen % handi batek esan du irakasleari euskaraz eta ikaskideekin euskara ez den beste hizkuntza baten aritzen direla. %28,57arengan ikusi da desberdintasun apur bat. Horiek irakaslearekin euskaraz mintzatzen dira, baina beraien artean euskara eta euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen dute. Gainontzekoek ez dute ohar hau egin, hau da, % 71,43k.

Aitzitik, beste ikastetxeetan baino nabarmenago, arlo formal eta ez-formalen markaketa agertzen da. Arlo formalak diren kasuetan, ikasleek euskaraz hitz egiten dute bai irakasle eta ikaskideekin, baina arlo ez-formaletan euskara ez den beste hizkuntza batean aritzen dira. Ez-formaletan, ikasleek esan dutenaren arabera, irakasleari ere euskara ez den beste hizkuntza baten hitz egiten dioten kasuak ere badira.

- Arlo formalak: Euskara, Gizarte (eta Natur) dira. Euskara eta Gizartek dute nagusitasuna, baina batzuek Natur arloa ere talde honetan sartzen dute. Irakasle eta ikaskideen artean euskaraz aritzen dira.
- Arlo ez-formalak: Soinketa arloa da horietako bat. Irakaslearekin euskaraz eta ikaskideen artean euskara ez den beste hizkuntza batean aritzen dira. Badira irakasleari euskara ez den beste hizkuntza batean egiten dietela aitortzen dutenak ere.

**Aztertuko diren  
puntu  
esanguratsuenak  
hauek izango  
dira: ama  
hizkuntza,  
euskararen  
erabilera, gelaz  
kanpoko  
hizkuntza  
jarduna,  
gurasoekiko  
hizkuntza,  
aisialdia eta  
euskaraz bizi.**

Eskola bitarteetan eta jolas orduetan, ikasleen %95,23k euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen du; eta % 4,76k, euskara eta euskara ez den beste hizkuntza bat.

Horrez gain, ikasleek gurasoekin dituzten hizkuntza erabilerek beste ikastetxeetan gertatzen ez den errealitate bat erakutsi dute oraingoan. Ikasleen %14,28k euskara hutsa erabiltzen du gurasoekin; %47,6k, euskara ez den beste hizkuntza bat; %23,8k, gurasoetako batek behintzat euskaraz badaki; eta %14,28k, gurasoek euskara eta euskara ez den beste hizkuntza bat dakite.

Aisialdian, irakurketari dagokionez, %14,28k euskaraz irakurtzen du; %19,4k, euskara ez den beste hizkuntza batean; eta %66,6k, euskara eta euskara ez den beste hizkuntza batean. Ikasleetatik %14,28k onartu du euskaraz ikastetxeko zeregin bezala bidaltzen dietelako irakurtzen duela, bestela, beraien hautuz, euskara ez den beste hizkuntza bat aukeratuko luketela.

Filmen inguruan beste ikastetxeetan ikusten ez dugun argazki bat agertzen zaigu. Ikasleen %4,76k euskaraz ikusten ditu filmak; %52,38k, euskara ez den beste hizkuntza batean; eta %42,85ek, euskara eta euskara ez den beste hizkuntza batean.

Bestalde, euskaraz bizi hausnarketaren barruan, ikasleen %30ek eskatu zaiena baino hausnarketa handiagoa egin dute. %30 horrek galde-gegitik kanpora erantzun du, hau da, aurreikusita ez zegoen galdera bati erantzun diote. Galdetegiaren ertzetan egin duten gogoeta honako hau izan da: *“Lehen Hezkuntzan euskara gehiago egiten zutela edo barneratuago zutela euskaraz egitea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan baino”*. Ikastetxetik kanpora, ikasleen %52,38k egiten du euskaraz, baina baietz esan dutenen artean %19,4k oso gutxi egiten duela aitortu du. Beste gogoeta batzuen artean, urtetik urtera gramatikalki gehiago dakitela ere esan dute, hala ere, erabilera edota hiztegi mailan mugatuta edo trabatuta daudela ere bai.

Bukatzeko, askok azpimarratu dute, nahiz eta ikastetxetik kanpo euskaraz ez egin edo gutxi egin, beharizan bat izan dutenetan euskaraz egin dutela; esaterako: entrenamenduetan, dentistarenean, udalekuetan, musikan ...

## **HAUSNARKETA ETA KONPARAKETA:**

**I**

Atal honetan, aurretik emaitzetan ikusitako datuen inguruan hausnartu eta emaitzak konparatuko dira. Hausnarketaz gaindi, ahal izanez gero, bi herrien arteko edota bi ikastetxe moten arteko konparaketak ere komentatuko dira.

## **Ama hizkuntza**

Ama hizkuntzari dagokionez, bi lekuetan espero zena ikusi da; hau da, Ondarroan %90etik gora euskararen erabilera bermatua dago, gurasoek beraien seme-alabei horrela transmititu dietelako. Iruñean, berriz, ama hizkuntza euskara dutenei dagokienez, maila apalagoa da datatze kuantitatiboan. Iruñeko datuak erakusten dute ama hizkuntzen arteko aniztasun handiagoa dela, baina %ak txikiagoak dira.

Deigarria da Iruñeko lekukoak % batek bere ama hizkuntza bi hizkuntzez osatzen dela azpimarratzea. Ondarroan, ordea, hori ez da geratu, aukera bakarra erabili dute.

Zenbait kasutan aipagarria da nahiz eta ama hizkuntza bi hizkuntzez (euskara eta gaztelania) osatua izan, lekukoek eman dituzten erantzunetan euskararen erabilera ez dela ikusten. Ama hizkuntza bikoitza dutenen euskararen erabilera (kale erabileran edota erosotasunean) ez da nahi bezain beste nabarmentzen.

## **Erosotasuna**

Egunerokotasuneko erabileran, ama hizkuntzarekin gertatzen diren parametro berdinak errepikatzen dira. Emaizetan ikusi denez, ama hizkuntza eta erosoan erabiltzen duten hizkuntza berbera izan ohi da. Hau da, ama hizkuntza edozein dela ere, erosotasun maila bera izango da. Berez, horrela izan beharko zukeen, baina ama hizkuntza bikoitza dutenen kasuan nagusitasuna hizkuntzetako batek hartzen du. Faktore desberdinak tarteko, erosotasunaren datuetan bi hizkuntzetako baten datuak ez dira agertzen.

Kontraesanak ere agertzen dira galdeketetan, batzuetan datuak ez datoz bat eroso sentitzen diren hizkuntza euskara dela diotenean. Esanguratsua da, baina bost galdera geroago ematen dituzten erantzunak irakurtzerakoan, bata edo bestea egia ez dela erakusten dute.

Hipotesi gisa, irakasgai edo froga batekin lotu dute galdetegia eta erantzun positiboak ematen saiatu dira, kasu batzuetan erratzeraino.

## **Bizilekua**

Bizilekuari dagokionez, bai Ondarroan eta bai Iruñean ere, gehiengo handi bat hirian/herrian bizi da. Kasurik hoberenean, %24,28 bizi da auzo/herri esparruetan.

Kontuan izan behar da, bi hiriguneetan badirela nortasun handiko auzoak, hori horrela izanda, aurretiaz jakin beharko genuke ikasle edo lekukoentzat auzo edota herria zerri deitzen dioten. Ondarroaren kasuan, ikusi denaren arabera, auzoa baserri eremuarekin edota herritik

---

***Iruñeko  
ikastetxeetan,  
bederen, arlo  
formal eta ez-  
formalen arteko  
bereizketa nabari  
da.***

**Ondarroako  
ikastetxeetan  
arlo guztietarako  
euskalkia  
erabiltzen dute.**

banandua dagoen eremu batekin lotu dute. Iruñean, aldiz, Iruñerriatik kanpo dagoen herri batekin lotu dute.

Agian, galdetegiak pasatzerakoan azalpen zehatzagoa behar zuen gai honek.

**Euskararen erabilera**

Euskararen erabileraren inguruan, ezberdintasunak nabari daitezke bi lurraldeen artean.

Iruñean, euskararen erabilera asko aldatzen da irakasle eta ikaskideen artean. Irakasleei ikasle gehienek euskaraz egiten die eta ikaskideen artean, eskola orduetan ere, euskara ez den beste hizkuntza baten aritzen dira. Iruñeko ikastetxeetan behintzat gertaera hori sistematikoa da eskolek irauten duten orduetan.

Zenbait kasutan, arloen artean desberdintasunak daudela ere ikusi da. Iruñeko ikastetxeetan, bederen, arlo formal eta ez-formalen arteko bereizketa nabari da. Arlo formalean, (euskara, gizarte eta natura) ikasleek irakasle eta ikaskideei euskaraz egiten diete. Arlo ez-formala denean, ordea, ikasleek irakasleari euskaraz egiten diote, baina beraien artean euskara ez den beste hizkuntza bat hitz egiten dute. Euskaraz bizi atalean ikusiko dena aurreratuz, badirudi ikasleen % batek euskara eta euskararen erabilera ikastetxeko hizkuntzarekin identifikatzen duela.

Bestalde, Ondarroako datuetan, galdetegiak argi erakusten dute ikasle eta irakasleen artean euskaraz harremantzen direla. Inkestako erantzun posible bat *Euskalkia* zen, eta atal honetan, Ondarroako ikastetxeetan arlo guztietarako euskalkia erabiltzen dute.

Aurrekotik bereiziz, Ondarroako ikastetxeetan ez da arlo formal eta ez-formalen arteko bereizketarik egiten hizkuntzaren ikuspuntutik begiratuta. Hezkuntza ereduak, euskara bizi-bizirik dagoen momentutik aurrera, euskalkia erabiltzeagatik bakarrik ontzat jotzen du.

Begi bistakoa da Ondarroan euskarak etorkizun hurbila gutxienez bermatua duela. Lagunartean, familian, tabernetan, kiroldegian, liburategian, dendetan ... euskarak bere lekua du eta hor egongo da. Hala eta guztiz ere, hezkuntza edo ikastetxeetatik hasita, euskara formalaren edota euskara batuaren presentzia ez bada horren markatua, ikasle hauek ez dute kompetentzia hori hain erraz garatuko.

Jakina da, ikastetxe batzuetan Lehen Hezkuntzan irakasle eta ikasleen arteko harremana euskara formalean egiteko ohitura edota erabakia hartuta dagoela, baina behin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara iritsita, ebazpen horrek indarra galtzen du. Interesgarria izango litzateke

nerabeengan estandarra edo formala erabiltzeko lanketa egitea euskara % handi batean bermatua dagoen herrietan.

## **Gurasoak**

Bi herriak konparatuz gero, ziurrenik gurasoei dagozkien erantzunetan ikusten dira beste arloetan baino alde handiagoak.

Ondarroan gurasoengandik jaso eta gurasoekin hitz egiten duten hizkuntza oso homogenea da, hau da, gurasoen % oso handi batek seme-alabekin euskaraz egiten du. Erregela hau ez da erabat zehatza salbuespenak badirelako, baina orokorrean hau gertatzen da.

Iruñean, aldiz, egoera bestelakoa da eta aniztasuna ere handiagoa da, nahiz eta, %ak txikiagoak izan. Iruñean gurasoak euskara ez den beste hizkuntza batean mintzatzen dira nagusiki beraien seme alabekin. Hipotesien arabera, gaztelania izango da gehien erabiltzen duten hizkuntza, beste jatorri desberdineko etorkinak ez direlako egon galdetegia pasatu den ikastetxeetako geletan.

Alor honetan, Iruñean, bederen, ikastola eta eskola konpara daitezke eta badirudi, hasierako begi bista kolpe batean eta ikasleek erantzun dutena kontuan hartuz, eskola publikoan gurasoen % euskalduna handiagoa dela edota euskara gehiagok dakitela. Ariketa honetatik ezin dira gurasoen patroiz zehatzak atera, lagina txikiegia delako, baina gela hauetako umeen gurasoengan hori da ikusi dena.

Guraso hauek behintzat, beraien seme-alabek euskara hutsean ikasteko hautua egin dute eta ikasketa filosofia baten eredupean. Eredugarria da guraso zenbaitek beraiek ikasi ezin izan zutena beraien seme-alabei eman nahi izaten ikustea.

Orokorrean, Ondarroan euskara da gurasoekin hitz egin eta jasotzen duten hizkuntza % oso handi batean. Iruñean desberdintasun batzuk dauden arren, erdi eta erdikoa dela esango genuke, hau da, euskara eta euskara ez den beste hizkuntza bat proportzio antzerakoan erabili eta zabaltzen diete seme-alabei.

## **Aisialdia**

Aisialdiari dagokionez, emaitzetan banaturik aztertu diren bi esparru hausnartuko dira. Alde batetik, ikastetxe barruko aisialdi bezala, eskola bitartekoak eta jolas orduetako denbora aipatuko dira; eta, bestetik, hizkuntzarekin lotuta dagoen ikastetxez kanpoko aisialdia.

Ikastetxe barruko aisialdiaren datuetan, erantzun koherenteak aurkitzen dira. Honekin esan nahi dudana da, klase bitartean hizkuntza bat erabiltzen bada, jolas orduan hizkuntza bera erabiltzen dela.

**Orokorrean,  
aisialdia ez dute  
euskaraz egiten;  
eta inguruak  
euskaraz egiten  
laguntzen ez  
duenean, geroz  
eta zailtasun  
handiagoak  
dituzte.**

Erantzun hauen inguruan Ondarroa eta Iruñearen artean alde oso nabarmenak ikusten dira. Ondarroan eskola bitartean eta jolas orduetan euskara erabiltzen da %100ean; Iruñean, aldiz, %100 ez bada ere, oso altua da euskara ez den beste hizkuntza batek duen presentzia.

Ondarroan euskalkia erabiltzen dute eta egoera ez formal bat denez, naturalki ateratzen zaie. Iruñean, eta lortu diren datuak ikusita, euskara hutsa %9,52k ibiltzen du; eta %24,28k, euskara eta euskara ez den beste hizkuntza bat. Falta den gainontzeko %a euskara ez den beste hizkuntza batean mintzatzen da aisialdi orduetan.

Hasiera batean, nerabeen errebeldia puntua izan daitekeela pentsa daiteke, edota gurasoek eta irakasleek esandakoaren aurka joateko erre-akzioa. Honen gainean uste da, heldzearekin batera, hizkuntza bat edo bestearen aldeko hautua egingo dutela lekukoek. Euskararen aldeko hautua egin dutenak asko izango dira, noski, baina euskara albo batean utzi dutenen %a? Ba al dakigu zenbat diren?

Horrez gain, ikastetxe kanpoko aisialdiari dagokionez, hizkuntza-rekin erlazionatutako abagunea irakurketa eta filmekin lotu da. Interegarriak dira bi generoen artean dauden desberdintasunak eta ikasleek beraien denbora librearen gainean eman dituzten erantzunak.

Irakurketan, ikasleek irakurtzen dutela baieztatu behar da, baina beste eztabaida bat izango litzateke zein hizkuntzatan irakurtzen duten. Laginean agertu diren erantzunen arabera, Ondarroan euskara hutsean irakurtzen dutenen %a 59tik gorakoa da. Iruñean, ostera, euskara hutsean irakurtzen dutenen %ko altuena 14,28koa da. Egia da euskara eta euskara ez den beste hizkuntza baten irakurtzen dutenen %a ikastetxe mota eta lurralde bietan oso altuak direla, altuena %66,6koa. Hala ere, Iruñean, oraindik ere, euskara ez den beste hizkuntza batean irakurtzen dutenen %ak handia izaten jarraitzen du.

Honen gainean zehaztasunen bat eginez, lekuko batek esan du ikastetxetik euskaraz irakurtzeko ez balie esango, beraien hautua euskara ez den beste hizkuntza bat izango litzatekeela.

Pelikulei dagokionez, erantzunak homogeneoagoak dira eta ikasle gehienek erantzun antzekoak eman dituzte. Salbuespena ikasle talde bategan egon da, hau da, nahiz eta ikusten dituzten pelikulen kopuru % handiena euskara ez den beste hizkuntza batean izan, euskara eta euskara ez den pelikulen %ra asko hurbiltzen da, ia-ia parera. Euskara ez den beste hizkuntza bateko pelikulak %52,36k ikusten badituzte ere, euskara eta euskara ez den beste hizkuntza batean ikusten dituztenak %42,85 dira.

Orokorrean, aisialdia ez dute euskaraz egiten; eta inguruak euskaraz egiten laguntzen ez duenean, geroz eta zailtasun handiagoak dituzte.

Gabezia honetan, ikastetxeek ere beraien papera dutela iruditzen zait, baina akatsa izango litzateke ikasleengan kontrako efektua sortzea.

## Euskaraz bizi

Euskaraz bizitzea, ikaslea bizi den testuinguruaren arabera erraza edo konplexua izan daiteke. Alor honetan ere, bi herrien artean ezberdintasun nabarmenak ikus daitezke beraien erantzunetan.

Ondarroako datuek erakusten dute euskaraz bizitzeko ezaugarri onenak dituztela. Hiztunen ia %100ek ama hizkuntza euskara du; eta etxe erabileran ere hori errespetatzen da. Horren erakusgarri dira EUS-TATetik ateratako 2006ko datu hauek. Garbiago ikus daiteke bertatik hartutako taula honetan:

2. taula. Ondarroako biztanleriaren hizkuntza-gaitasuna

Guztira	Ama-hizkuntza				Etxean erabiltzen den hizkuntza			
	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat
9.028	6.491	1.714	376	447	5.012	2.079	1.883	54

Ondarroako ikasleek aurreko ikasturtetik euskara gehiago dakiten edo gehiago erabiltzen duten galderei ezetz erantzun diete gehienek. Salbuespen gutxi batzuk egon dira, esaterako, gramatika zerbait gehiago ikasi dutela, baina orokorrean ezetz erantzun dute.

Erabilerari buruz galdetu zaienean, gehiago erabiltzen ez dutela esan dute. Beraientzat galdera horrek ez du inolako zentzurik izan, salbuespen gutxi batzuk kenduta, %100ean euskaraz bizi direlako. Ama hizkuntza gaztelania, wolof edo serer dutenak ere, etxean izan ezik ka-lean euskaraz bizi dira.

Iruñeko kasuaren inguruan, datuek esaten dute orokorrean ikasleek euskaraz bizitzeko zailtasunak dituztela. Ikastetxea, zenbait kasutan, uharte bat bezala da ikasleentzat eta euskarari dagokion guztia bertan egiten dute.

Euskararekin lotutako Nafarroako datu bakarrak 1996.urtekoak dira eta Nafarroako Estatistika Institutuan daude. Bertan agertzen den taulak urte horretako eroldaren arabera eginak dira, eta hortaz, onerako edo txarrerako aldatuak egon daitezke. Gogoratzekoa da Nafarroan D eredia Ikastoletan 1968.urtean jarri zutela lehenengo aldiz, eta urte batzuk geroxeago, 1975.urtean, eskola publikoetan.

Hauek dira 1996.urteko euskararekin lotzen diren datuak Nafarroan:

**Iruñeko kasuaren inguruan, datuek esaten dute orokorrean ikasleek euskaraz bizitzeko zailtasunak dituztela. Ikastetxea, zenbait kasutan, uharte bat bezala da ikasleentzat eta euskarari dagokion guztia bertan egiten dute.**



3.taula. Bi urtetik goitikoen banaketa hizkuntza trebetasunen, sexuaren eta eremuaren arabera.  
Distribución de la población de 2 y más años por capacidades lingüísticas, según sexo y zonas

SEXU ETA EREMUAK/ SEXOS Y ZONA DE RESIDENCIA	GUZTIRA/ TOTAL	ULERTZEN DU/ ENTIENDE EUSKERA		HITZ EGITEN DU/ HABLA EUSKERA		IRAKURTZEN DU/ LEE EUSKERA		IDAZTEN DU/ SCRIBE EUSKERA	
		ONGI/ BIEN	NEKEZ/ CON DIFICULTAD	ONGI/ BIEN	NEKEZ/ CON DIFICULTAD	ONGI/ BIEN	NEKEZ/ CON DIFICULTAD	ONGI/ BIEN	NEKEZ/ CON DIFICULTAD
GUZTIRA/TOTAL	536.989	42.107	70.318	45.288	65.119	37.685	56.210	37.650	50.699
Euskalduna/ Vascófona	53.632	5.856	34.701	7.078	33.420	9.184	26.364	10.522	23.316
Mistoa/ Mixta	288.953	28.596	30.695	31.403	27.462	22.566	25.592	21.271	23.479
Ez-euskalduna/ No vascófona	194.404	7.655	4.922	6.807	4.237	5.935	4.254	5.857	3.904

Iruñeko ikasleetako zenbaitek, beraien kabuz, galdetegian eskatzen zaiena baino hausnarketa handiagoa egin zuten. Ikasleen %30ek galdetegiaren alboetan zehaztaper hau egin zuten: *“Lehen Hezkuntzan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan baino euskara gehiago erabiltzen zutela edota kontzientzia gehiago zutela”*. Hausnarketa kontsekuente hori beraiei atzean geratzen zaien garai bat da eta, nolabait esateko, kritika beraien buruentzako da.

Ikasleek esan dutenaren arabera, gutxi gorabehera %52,38k euskaraz ari da ikastetxetik kanpo, baina ZENBAT? galdera erantzutean, portzentaje horretatik %19,4k euskara oso gutxi erabiltzen dutela esaten du.

Nahiz eta euskaraz gutxi egin, beharrezana sentitu dutenetan, ez dute inolako arazorik izan euskaraz egiteko. Ikasleek egin duten beste zehaztasun batzuetan esan dute dentistarenean, entrenamenduan, musikan, udalekuetan ... bertako kide edo medikuek euskaraz eginez gero, beraiek ere euskaraz egiten dutela eta ez dutela arazorik.

Horrek erakusten du hizkuntza batek bere bidea garbiagoa izateko ofizialtasuna izan eta beharrezana sortu beharra duela.

Bestalde, zenbait ikaslek ikastetxetik kanpora oso gutxi erabiltzen dute euskara, baina batzuek herrian egiten dutela aitortzen dute. Kopurua ez da esanguratsua eta, gainera, kasu guztietan euskaraz egitearena ez da betetzen.

## **Etorkinak**

Galdetegia pasatu eta lanerako erabilitako lagineko ikastetxeetan etorkinen presentzia ez da handia izan. Laginean zeuden ikasleen %3,75

bakarriz izan da etorkina edota kanpotik etorritako ikaslea. Iruñeko bi ikastetxeetan ez dago etorkinik matrikulatuta aztertu den mailan eta Ondarroako bi ikastetxeetan daude aipatutako %ak.

Laginean agertzen diren etorkin guztiak euskararen murgiltze planean daude. Agertu diren kasuetako batzuk oraindik arlo zehatzak ez dituzte ematen euskararen murgiltze plana horrela dagoelako egituratuta.

Etorkinen artean ere ezberdintasunak aurki daitezke. Etorkinetako bat orain dela bi urte iritsi zen eta, horren ondorioz, aldaketak barnertzen ari da. Esaterako, Wolof hizkuntzaren eta euskararen grafia sistema ez dira berdinak, hortaz, euskaraz entzuten duena etorkinak beste modu batera identifikatzen du. Horregatik, horrelako gauza txikiak ere ikasi egin behar izaten dituzte. Beste etorkinetako bat Lehen Hezkuntza garaian etorri zen, eta, gaur egun, ondarrutar bat gehiago da.

Bata eta bestearen artean alde nabarmenak daude, baina ikus daiteke murgilketak bere eragina duela eta denbora tarte batean balio positiboak sortzen dituela. Bestalde, ikastetxetik kanpoko munduak eta inguruan duen gizarteak etorkina izateari utzi nahi dion pertsona horri balio positiboak eta eskuragarritasuna eman beharko lizkioke.

## ONDORIOAK

Bi errealitateen arteko konparaketan, ondorioak askotarikoak izan daitezke eta hausnarketarako aukera handia eman dezakete, kezkatua dagoen jende desberdina batuz gero.

Alde batetik, uste dut hezkuntza alorrera begiratuta euskararen erabilera egokia aplikatzea posible dela, eta beharrezkoa. Nafarroako Foru Erkidegoaren kasuan, zerbait aitzindaria eta egokia egin behar delakoan nago, ikasgelatik kanpoko euskararen erabilera oso ahula delako. Euskara agertzen den portzentaje handi bat euskararekin lotu gabeko tesuinguruan kokatzen da. Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez, zonalde batzuetan euskarak egoera hobea baldin badu ere, euskararen erabilera egokia berdin-berdin bultzatu eta indartu beharko litzateke. Herri euskaldunetan euskaraz egitea gaur egun ez da nahikoa, badirelako landu behar diren beste hainbat esparru, esaterako: hizkuntza formala eta erregistroa. Euskara epe batzuen barruan bermatua dagoen eremuetan, euskaraz bizitzeko nahiaren eskubidea ere jorrazteko beta egongo litzatekeela uste dut.

Bestetik, euskararen erabileraren lanketa ezin da hezkuntzaren gainean bakarrik utzi, hezkuntzaren ibilbide laboralak ez duelako guztia bermatzeko aukerarik ematen. Lanean ikusi denaren arabera, gurasoek

---

***Euskararen  
erabileraren  
lanketa ezin da  
hezkuntzaren  
gainean bakarrik  
utzi,  
hezkuntzaren  
ibilbide laboralak  
ez duelako guztia  
bermatzeko  
aukerarik  
ematen.***

transmititutakoa eta harremanetarako hizkuntza bera izaten da. Aisialdia ere, hizkuntza berdinarekin dago lotua. Hortaz, esparru eta joera desberdinak elkarren artean erlazionatuak daude. Arazo honen aurrean, biderik oparoena, kate bat osatzea izango litzateke, modu honetara, indarrak norabide berdinean joateko. Herria/hiria edo lurraldea zein den kontuan hartzen baldin badugu, ibilbidea inolako arazorik gabe zehaztuko genuke eta, seguru asko, asmatu ere bai.

Gazteek hizkuntzen inguruan eta, zer esanik ez, euskararen gainean, duten motibazioa ikusita, ikerketan dabiltzanek proposatutako baliabide berriak abian jarri beharko lirateke. Penagarria bada ere, nahiz eta aurrera pausuak nabarmenak izan esparru batzuetan, oraindik ere, gutxi galdu eta irabazteko asko dugun mezua egokia delakoan nago.

Toki guztietan gauzak nola doazen dakigun arren, eraldaketa bat aurreikusi beharko litzateke eta lanketa osatu bat egin ohikotasunak albo batera utziz. Planteamendu berritzailea edota aitzindaria izan behar duen proiektuaren diskurtsoa zabaldu behar duenak mezua bereganatua izatean dago gakoa. Gaia plazaratu edo landuko duen horrek argi ez baldin badu, ondorengoei planteamendua ez die modu eraginkorrean pasatuko.

Lanketek ohikotasunak estaltzen lagunduko ligukete eta gutxien esperoko genukeen lekuetan, euskararen hobekuntzarako bilakaera bat ikusiko genuke. Ibilbidea hau izanda, utopia bat gehiago dirudi errealitatea baino. Aukera hauek aurrera eramateko, gizartearen eta bere instantzia gorenen aldaketa bat egon beharko litzateke eta ez dakit zein punturaino gauden horrek aldatzeko kontzientziatuta. Edota, ez dakit mundu globalizatu honetan interesik ere dagoen.

Hori esanda, ahaztu gabe ezin ditut utzi lana egiten eta bideratzen lagundu didaten Consuelo Allué tutorea eta edozein zalantzaren aurrean laguntzeko prest izan diren bidelagunak; beraiek gabe ezingo nuke ezer egin. Eta nola ez, galdetegiak pasatzeko ikastetxeetako ateak ireki dizkidaten irakasle eta zuzendariak. Mila esker guztioi!

## **BIBLIOGRAFIA**

Aleman Astitz, Sagrario (2007). "EAEko euskararen legearen garapenez Nafarroaren ikuspegia". 52. Zenb. 1545-1551 or. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/71495.pdf>.

Eusko Jaurlaritza (1998). *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Euskararen Aholku Batzordea. [http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/ebpn\\_eusk.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/ebpn_eusk.pdf)

- Eusko Jaurlaritzako (2005). *III. Mapa Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz. [http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/III\\_Mapa\\_Soziolinguistikoa\\_euskaraz.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/III_Mapa_Soziolinguistikoa_euskaraz.pdf)
- Eusko Jaurlaritzako (2009). *IV. Mapa Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz. [http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/MAPA-eusk.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/MAPA-eusk.pdf)
- Eusko Jaurlaritzako (2011). *Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. [http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/ebpn\\_txostena/EBPN%20Txostena%20eusk.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/ebpn_txostena/EBPN%20Txostena%20eusk.pdf)
- Hik Hasi albisteak (2013). “Nerabea ulertu, nerabezaroa ulertzeko”. <http://www.hikhasi.com/albiste.php?id=705>
- Intxausti, Nahia & Feli Etxebarria (2010). “EAEko familia etorkinen aukerak lehen hezkuntzan: eskola eta hizkuntza eredia”. EHU. Tantak. 43-65 or. <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Tantak/article/view/1410/1050>
- Jakin (2003) *Euskararen egoera Nafarroan*. 135.zenbakia [http://www.jakin-gunea.com/50urte/pdf/Jakin03\\_135/Jakin03\\_135\\_083.pdf](http://www.jakin-gunea.com/50urte/pdf/Jakin03_135/Jakin03_135_083.pdf)
- Nafarroako Gobernua (1986). *Nafarroako euskararen foru legea*. <http://www.behatokia.org/dokumentuak/LNAF2E.PDF>
- Nafarroako Gobernua (2006). *Estudio sociolingüístico en pamplona y su comarca*. Euskara Bidea. Iruñea-Pamplona. [http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/pamplona\\_y\\_su\\_comarca\\_2006.pdf](http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/pamplona_y_su_comarca_2006.pdf)
- Nafarroako Gobernua (2008). *Euskararen egoera Nafarroan, Azterlan soziolinguistikoa*. Hezkuntza departamentua. Iruñea-Pamplona. <http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/situacion-euskera-euskera-castellano1.pdf>
- Sareko Euskal Gramatika. “Euskarari buruzko araudi ofiziala”. EHU. <http://www.ehu.es/seg/gizt/1/5>
- Soziolinguistika Klusterra (2011). “Nerabeak, interneteko sare sozialak eta euskara”. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain. <http://www.soziolinguistika.org/nerabeaksaresozialak>
- Soziolinguistika Klusterra (2013). “Arrue proiektua - Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak”. Eusko Jaurlaritzako. [http://www.soziolinguistika.org/files/ED2011\\_Emaitza\\_nagusien\\_txostena.pdf](http://www.soziolinguistika.org/files/ED2011_Emaitza_nagusien_txostena.pdf) [www.wikipedia.com](http://www.wikipedia.com)